

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (TMI), 2006ko 1go hiruhilekoa

Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektorean, salmentak %6,1 gehitu ziren 2006ko lehenengo hiruhilekoan

Merkataritza espezializatuaren salmentek %7,6ko urte arteko hazkundera izan zuten, eta espezializatu gabekoaren salmentek, berriz, %3,2koa

EUSTATEk emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreak salmenta nominalak %6,1an igo zituen 2006ko lehenengo hiruhilekoan, aurreko urteko denboraldi beraren aldean. Hazkunde nominal hau, prezioen igoeraren ondorioa kenduta, urte arteko bilakaera-tasa bihurtu da, positiboa hori ere, %5,6koa, termino errealetan.

URTE ARTEKO HAZKUNDE-TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2004	I	1,5	1,2	2,1
	II	4,7	7,0	0,3
	III	5,7	7,2	3,1
	IV	5,4	7,7	1,0
2005	I	1,6	2,9	-1,0
	II	2,8	2,8	2,8
	III	1,7	2,8	-0,3
	IV	0,3	0,4	0,3
2006	I	5,6	7,0	2,6

Iturria: EUSTAT

Betiko txikizkako merkataritzak (espezializatua) salmenta nominalak %7,6 igo zituen 2006ko lehenengo hiruhilekoan, 2005eko denboraldi beraren aldean. Igoera nominal hori %7,0ko hazkunde-tasa bihurtzen da termino errealetan.

Azalera handi eta ertainetako txikizkako merkataritza (espezializatu gabea) %3,2 igo da aurtengo lehenengo hiruhilekoan, termino nominaletan. Urte arteko tasa errealaren aldakuntza %2,6koa da, 2005eko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko hazkundeko tasarik handiena pertsonen hornikuntzako sektoreari dagokio. %14,3ko hazkunde nominala izan du; termino errealetan, %13,5koa. Etxearen hornikuntzako ondasunek ez dute hain hazkunde nabarmena izan; horien hazkundera %1,5koa izan da termino nominaletan; tasa hori %0,3koa da, gainera, (positiboa hau ere) termino errealetan. Elikagaien salmentak %1,8 gehitu ziren urteko eurotan, baina %1,8 gutxitu ziren termino errealetan. Beste alde batetik, Bestelako Kontsumo Ondasunen partidak (kirolak, jolasak, optikak eta liburu-dendak, besteak beste) %5,8ko hazkunde nominala izan

zuen; produktu horien prezioen deflazio-efektuaren ondorioz, baina, termino errealetan, tasa hori %6,8 bihurtu zen.

Lurralde historikoetan, 2006ko lehenengo hiruhilekoan, txikizkako sektoreko salmenta nominaletan Araban izan zen hazkunderik handiena, %12,7ko urte arteko gehikuntzarekin. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %14,7 hazi ziren, eta espezializatu gabekoarenak, %9.

Bizkaiak tarteko lurralde-bilakaera izan du (%6,4); merkataritza espezializatuko salmentak %6,8 hazi ziren eta espezializatu gabekoarenak %5,5.

Gipuzkoan eman zen txikizkako sektoreko urte arteko salmenten gehikuntzarik txikiena (%2,8), txikizkako merkataritza espezializatuaren gehikuntza %6,1ekoa eta %3,6ko gutxitzea espezializatu gabekoarena, betiere urte arteko aldakuntza nominaleko terminoetan.

Txikizkako merkataritza sektorean enpleguaren hazkundera %1,4 izan zen, aurreko urteko lehenengo hiruhilekoaren batez bestekoaren aldean. Lurraldeka honelakoa izan zen: Bizkaian %2,9 gehitu zen, Gipuzkoan %0,4 eta Araban %1,9 gutxitu zen. Alabaina, 2006ko lehenengo hiruhilekoan, txikizkako merkataritzako sektore honetako langile okupatuen kopurua %2,4 murriztu zen aurreko hiruhilekoaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp